

FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren VI Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren VI. Edizioaren —2018/2019 ikasturtea— Ingeniaritza eta Arkitektura jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko lana aztertu ondoren, epaimahaiak saria honako lan honi ematea erabaki du:

Euskaraz:

10-12 URTEKO HAURREK INFORMATIKARI BURUZ DUTEN IRITZIAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREEN BILA

Gaztelaniaz:

Hutsik

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiak 2020ko otsailaren 14a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.es/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-vi-edizioa> web orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

Mikele Zurutuza Renom

Ingeniaritza Informatikako gradua (Informatika Fakultatea)

Tutoreak: Olatz Arbelaitz Gallego / Edurne Larraza Mendiluze

10-12 URTEKO HAURREK INFORMATIKARI BURUZ DUTEN IRITZIAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREEN BILA

LABURPENA:

Ezaguna da gaur egun teknologiarekin eta bereziki informatikarekin lotutako ikasketa eta lanbideetan dagoen emakume eskasia, baina arrazoiak eta bokazioak noiz aldentzen diren ez dago argi. Gai horri argi printza batzuk emateko asmoz, konputagailuen programazioa gaztetxoek artean zabaltzeko zenbait ekimen existitzen dira. Mundu mailan hedatu den Kode Ordua oinarri hartuta, hiru urtez hainbat ikastetxetan 10-12 urte bitarteko gaztetxoek artean bildutako galdetegiaren erantzun eta marrazkien azterketa egin dugu lan honetan. Datu-meatzaritza prozesu oso bat egin behar izan dugu horretarako. Lortutako emaitzen artean, nabarmendu nahiko genuke badirudiela gure inguruko 10-12 urteko neskek oraindik hein handi batean ikusten dutela Informatikaria neska izan daitekeela. Mutilek, ordea, oro har gizonezkoak edo identifikatu ezinezko generoa duten gizakiak imajinatzen dituzte.

It is broadly known there is lack of women in fields related to technology and computer science. However, the reason causing this is unclear. In order to tackle this issue, there are several events that take place with the aim of making kids aware of the basic concepts of computer programming. Based on a worldwide expanded project called The Hour of Code, an analysis of the answers and drawings gathered in a survey conducted among 10- 12-years-old youngsters has been performed. A complete data-mining process has been undertaken with the aim of interpreting the results. As a conclusion, it seems young girls still can figure women computer scientists, but young boys don't or at least they represent them as men or as unidentifiable genre.